# ELKARRI Hizketa



Ylenia BAGLIETTO

Itxaro PAYA






# AZALPENA

Ylenia Baglietto eta Itxaso Paya euskal artistak haien bizipenak partekatzeko elkartuko dira. Elkarrizketa gurutzatuak izango dira nagusi, baita musika eta kantua ere. Hartzaileek emanaldia haien ikasgelan bertan bizitzeko aukera izango dute.









# EGITURA

Protagonistek emanaldiari hasiera emango diote zuzeneko musikaren bitartez, gitarra eta ahotsak uztartuz.



Gero, bakoitzak norberaren ibilbidea kontatuko du txikitatik profesionalki artearen munduan murgildu arte.

Ondoren, haien bideak nola elkartu ziren kontatuko digute momentu hori zuzeneko musikaren bitartez islatuz.



Hurrengo atalean haien ibilbide profesionalak ezagutuko ditugu.
Honetaz gain, hartzaileek espazio berezi bat izango dute parte hartze aktiborako, hau da, galderak eta zalantzak protagonistekin partekatzeko.

Emanaldiari bukaera emateko hartzaileak dantzan jartzeko moduko abesti bat eskainiko dute Itxasok eta Yleniak.

Azken agur bezala talde osoaren argazkia aterako dugu Elkarrihizketaren familia liburua osatzeko. Bertan, hartzaileek haien dedikatoriak idatzi ahalko dituzte.

# HELBURUAK



## TRANSMISIOA

- Benetako bizipenetan oinarritutako testigantzak
- Arte eszenikoetan galdutako ohiturak berreskuratu
- Kultura kontsumoa sustatu



## GENEROA

- Euskal emakume artista erreferenteak eta hartzaileak hurbildu
- Arte eszenikoen barne munduko genero ikuspegia plazaratu



## EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA

- Euskaraz sortzearen eta lan egitearen garrantzia azpimarratu
- Arte eszenikoen barne mundua ezagutarazi
- Artisten arteko sinergiak eta taldelana bultzatu
- Euskararekin lotutako esperientzia positiboak eskaini



## PARTE-HARTZE AKTIBOA

- Hartzaileentzako aholkularitza eskaini formazio artistikoari dagokionez
- Arte eszenikoen barne munduarekin lotutako hausnarketak proposatu
- Hartzaileentzako espazio bat sortu haien zalantzak argitzeko aukera eskainiz
- Hartzaileen parte-hartze pasiboa eta aktiboa sustatu

# HARTZAILEAK

12-18 urte bitarteko ikasleak

*(DBH eta Batxilergoa)*



# IRAUPENA

55 minutu

# ITXASO PAYA



Arte Dramatiko eta Ikus-entzunezkoa ikasketak egin zituen. Gaztetatik sortzaile gisa aritu da kulturaren hainbat esparrutan: antzerkia, bertsolaritza, literatura, musika.. "Go!azen" telesailean parte hartzean bilakatu zen ezaguna eta ordutik telebistan zein antzerkian aritu da gehienbat.

# YLENIA BAGLIETTO

Ylenia Bagliettok dote artistikoak izan ditu txikitatik. Lau urterekin gimnasia erritmikoa egiten hasi zen non Espainiako txapelduna izatera heldu zen behin baino gehiagotan.
Hamazortzi urterekin arte dramatikoa ikasten hasi zen eta handik gutxira Etb1eko Goenkale telesailean hartu zuten Eiderren pertsonaia interpretatzeko.
Aldi berean antzerkia eta musikalak egiten hasi zen, baita dantza espektakuluak ere. Hortik aurrera hainbat film eta telesailetan parte hartu du; Ocho apellidos catalanes, García y García, Presunto Culpable, Bagoaz, Etxekoak… Eta arrakasta internaziolarera eraman duen Acacias 38 telesaila batik bat. Maite Zalduaren pertsonaia interpretatzen du azken honetan.




"Gure
ametsak
egia bihurtzeko
jaioak"



zelako

KULTUR IDEIAK

kontratazioa@zelako.eus